# NAhitA

Enero 2010ko Urtarrila
Nº 9.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpena Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua



Ilustración Javier Etayo

## >> ERREPORTAIA Reportaje

ARROSA ETA URDINAZ HARATAGO...
PERTSONAK IZATEN LAGUNTZEN DIGUTEN JOLASAK.

MÁS ALLÁ DEL ROSA Y EL AZUL...
JUEGOS QUE NOS ENSEÑAN A SER PERSONAS

## >> Recuperando nuestra historia Gure historia berreskuratuz

COMADRONAS O PARTERAS · EMAGINAK

# >>PROGRAMA ´ESCUELA DE EMPODERAMIENTO´
# >>´JABEKUNTZA ESKOLA´ EGITARAUA

## IDENTITATEAREN ILDOA LÍNEA IDENTIDAD

Jabekuntzatik kanpo uzten nauten sentimenduak eta bizipenak (18 ordu) / Sentimientos y vivencias que me desempoderan (18 h)

Del 1 de febrero al 29 de marzo. Lunes, de 18:00 a 20:00 h. Formadora: Inma Merino

**Matrikula: 5 Euro · KREDITU 1**

Sentimenduak femeninotasunaren eremukoak dira, baina gutxi ezagutzen ditugu eta are gutxiago menperatzen. Sarritan harritu egiten gara gure emozio-erantzunekin eta ez dugu jakiten nola ulertu. Zenbait sentimenduk, gainera,"fama txarra" daukate, ukatu eta ito egiten ditugu eta errudun sentitzen gara halakoak sentitzeagatik, nahasmendua areagotuz.

Los sentimientos son un terreno asignado a la feminidad, pero los conocemos poco y los manejamos menos. Muchas de nuestras reacciones emocionales nos desconciertan, no sabemos cómo interpretarlas. Algunos sentimientos, además, tienen "mala prensa", se niegan y se reprimen, de manera que nos sentimos culpables al sentirlos y la confusión aumenta.

## OSASUNAREN ILDOA LÍNEA SALUD

Zoru Pelbikoa indartzeko programa II. (8 ordu) / Programa de refuerzo del suelo pélvico II (8 h)

Del 4 de febrero al 25 de marzo. Jueves de 18:00 a 19:00 h. Formadora: Idurre Zabala

**Matrikula: 5 Euro · 0,5 KREDITU**

Programaren bigarren zati honetan zoru pelbikoaren anatomiari buruzko teorian sakondu eta gorputza lantzeko zati praktikoari jarraipena emango diogu.Baldintza: aurreko ikastaroan parte hartu izana (Zoru Pelbikoa indartzeko programa I).

En esta segunda parte del programa profundizaremos en la teoría sobre anatomía del suelo pélvico y continuaremos con la parte práctica de trabajo corporal. Requisito: haber participando en la primera parte (Programa de refuerzo del suelo pélvico I).

## KULTURA BIRDEFINITUZ ILDOA LÍNEA REDEFINIENDO LA CULTURA

IRAKURKETA KLUBA: Emakumeen literatura (12 ordu) / CLUB DE LECTURA: Literatura de mujeres (12 h)

Inicio 21 de enero. Jueves, de 18:00 a 20:00 h. Formadora: Marian Benítez

**Matrikula: 5 Euro · 0,5 KREDITU**

Emakume idazleen lanen bidez literaturara hurbildu nahi dutenentzako gune irekia da hau. Hilean behin elkartuko gara aukeratutako liburuari buruzko hausnarketak konpartitzeko. **Oharra:** Ekintza hau urte osokoa izango da. Plazarik libre egonez gero hiruhileko bakoitzaren hasieran partaide berriak onartuko dira.

Este es un espacio abierto a quienes deseen acercarse a la literatura a través de las obras de distintas escritoras. Una vez al mes compartiremos reflexiones y analizaremos la obra seleccionada. **Nota:** La duración de este taller es de un curso completo. Cada trimestre se admitirán nuevas incorporaciones si sobran plazas.

## FEMINISMOAREN ILDOA LÍNEA FEMINISMO

Generoaren indarkeria sortzen duten egiturazko osagaiak (8 ordu) / Factores estructurales facilitadores de la violencia de género (8 h)

19 y 20 de febrero. Viernes de 16:30 a 20:30 h. y sábado de 10:00 a 14.00 h. Formadora: Mª Jesús Izquierdo

**Matrikula: 5 Euro · 0,5 KREDITU**

Tailer honetan genero-indarkeriaren gaiari helduko diogu, berori sortzen duen testuingurua aztertuz, harreman-egitura sexista eta patriarkal batek zein kalte handia egin diezaiekeen emakume eta gizonei ulertu ahal izateko.
**Oharra:** tailer hau Ondarroa eta Ermuko jabekuntza eskolek antolatzen dute eta ERMUKO EMAKUMEEN TOPALEKUAN izango da.

En este taller se abordará la violencia de género atendiendo al contexto en el que se produce para así entender los daños que una estructura de relaciones sexista y patriarcal genera en mujeres y hombres.
**Nota:** taller organizado conjuntamente por la Escuela de Empoderamiento de Ondarroa y Ermua e impartido en la CASA DE LA MUJER DE ERMUA

Espazioa eta denbora:emakumeen aztarnak Ermuan (10 ordu) / Espacio y tiempo: huellas de mujeres en Ermua (10 h)

Del 2 al 30 de marzo. Martes, de 18:00 a 20:00 h. Formadora: Zaida Fernández

**Matrikula: 5 Euro · 0,5 KREDITU**

Tailer honetan Ermuko emakumeen mugimenduren ibilbide historikoa egingo dugu, leku eta datarik garrantzitsuenak gogora ekarriz. Esanahi politiko, sozial, kultural eta generazionala daukaten espazioen sorreran parte hartu dugunean izandako esperientziak elkartrukatzeko

En este taller haremos un recorrido histórico del movimiento de mujeres en Ermua a través de aquellos lugares y fechas más importantes, compartiendo experiencias y vivencias sobre nuestra participación en la construcción de espacios dotados de significados políticos, sociales, culturales, generacionales…

**ONDARROA, 6 DE FEBRERO · ENCUENTRO ESCUELAS DE EMPODERAMIENTO DE BIZKAIA**
**MEMORIA HISTÓRICA Y FEMINISMO · LAS HUELLAS GENÉRICAS DE LAS MUJERES Y DEL FEMINISMO**

**PRESTAKUNTZA- ETA PARTAIDETZA-GUNEA / BESTELAKO EKINTZAK**
**ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN / OTRAS ACTIVIDADES**



KULTUR IRTEERA SALIDA CULTURAL · BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUA CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK ASOCIACIONES · SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK ...ETA ABAR CHARLAS...ETC.

Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

# >>Editoriala<<

Oraindik ere entzuten dira Granadan Erakunde Feministen Estatuko Koordinakundeak joan den abenduan antolatutako jardunaldietan parte hartu zuten 4.000 emakume baino gehiagoren ahotsen oihartzunak, 1979 urte hartan Andaluziako hiri liluragarri horretan Lehenengo Jardunaldi Feminista izango ziren haietatik 30 urte iragan direnean.

–"Sinestezina da! Horrenbeste aldatu dira gauzak!"– zen feminista nolabait *historikoei* entzuten zitzaien esaldia.

–"Emakumeok ez gaude oraindik beharko genukeen tokian"- zegoen bertan ziren guztien ahotan.

Dudarik gabe, azken 30 urteotan gauzak asko aldatu dira gizartean bai eta mugimendu feministaren barruan ere. 1979an emakumeen zapalketaren jatorria aurkitu nahi zebiltzan, eta orain, ordea, feminismoaren aniztasun ideologikoa eta politikoa ukaezina da.

Eta... hona galdera: –**"30 urte geroago… beharrezkoa al da oraindik feminismoa?"**–. 4.000 feminista baino gehiagoren erantzuna beraien borrokaren eta eskaintzen dituen aukera guztien jadanekotasunaren egiaztapena izan da.

Kalte handia egiten diguten ezberdintasun ugari dira oraindik: enpleguaren ezegonkortasuna, pobreziaren feminizazioa, emakumeenganako indarkeria, herritarren derrigorrezkotasuna… Jardunaldi hauetan emakume gazteen partaidetza erabatekoa izan da, eta horrek beteranoenekin batera borrokatzeko eta erreleboa hartzeko prest daudela adierazten du.

Berdintasunaren aldeko borrokan gizonek duten partaidetzari buruzko eztabaidak ere izan dira jardunaldietan. –"Ez daukagu argi gizon eta emakumez osatutako mugimendu berri bat sortu behar denik. Kontzientzia hartzea oso ondo dago, baina gure esperientziak eta beraienak oso ezberdinak dira"-

Ekintza eta jarduera ugari izan dira: ehun eta hogeita bi hitzaldi eta mahai-inguru hiru egunetan. Eztabaidak bizirik dirau eta mugimendu feministak ere bai, aldian-aldian esperientziak elkartu eta elkartrukatzeko espazio hauei bidea emanez.

Lesbianismoa, trabestismoa, genero aldaketa, sexuartekotasuna… subjektu/nortasun feministaren gaineko eztabaidekin batera norbere ideiak defendatzeagatik bizitza eman duten emakumeei egindako omenaldiak izan dira: –"Granadako hirian eta probintzia osoan fusilatutako emakume errepublikar guztiak "Lorca" izan ziren"- esaten zen, emakumeen esperientziak isilean ez uzteko Memoriak izugarrizko garrantzia duela aldarrikatu nahian; eta aldameneko gelan Elikagai Burujabetzaren eta ikuspegi feministatik beste kontsumo eredu bat eraikitzeko emakumeek duten eginkizunari buruzko hausnarketak …–"Nik guztietara joan nahiko nuke, baina ezinezkoa da!"–.

–"Goazen manifestaziora!!".

–"Alerta, alerta, alerta que camina, el movimiento feminista por las calles *granaínas*!!!"

Aún resuenan en Granada los ecos de las voces de más de 4.000 mujeres, participantes el pasado mes de diciembre en las Jornadas organizadas por la Coordinadora Estatal de Organizaciones Feministas, 30 años después de las que fueran las Primeras Jornadas Feministas, allá por el año 1979, en la misma mágica ciudad andaluza.

–"Las cosas han cambiado tanto que parece increíble"–era el comentario de las feministas digamos *históricas*.

–"Las mujeres aún no estamos donde debemos estar"– compartían todas las presentes.

Es indudable que han cambiado muchas cosas en la sociedad y también dentro del propio movimiento feminista en estos últimos 30 años. Si en 1979 se buscaba el origen de la opresión de las mujeres, hoy la diversidad ideológica y política del feminismo es innegable.

Y la pregunta: –**"30 años después… ¿aún es necesario el feminismo?"**–. La respuesta de más de cuatro mil feministas ha sido certificar la vigencia de su lucha. Se mantienen todavía desigualdades muy graves que nos siguen afectando: cuestiones como la precariedad económica, la feminización de la pobreza, la violencia hacia las mujeres, la obligatoriedad de los cuidados… La participación de las mujeres jóvenes en las jornadas ha sido rotunda, expresión de su clara disposición a luchar junto a las más veteranas y a tomar el relevo.

El debate sobre la participación de los hombres en la lucha por la igualdad ha tenido también su espacio en estas jornadas. –"No tenemos claro que deba crearse un nuevo movimiento formado por hombres y mujeres. Está muy bien que se conciencien, pero nuestras experiencias son distintas de las de ellos"–.

La actividad ha sido incesante: ciento veintidós ponencias y mesas redondas en tres días. Y el debate sigue vivo, como el propio movimiento feminista, que propicia periódicamente estos espacios de encuentro e intercambio de experiencias.

Lesbianismo, travestismo, transgenerismo, intersexualidad... el debate sobre el sujeto/identidad feminista ha acompañado a acciones de homenaje a mujeres que pagaron con su vida la defensa de sus ideales: –"Lorca fueron todas las mujeres republicanas fusiladas en Granada y su provincia"– se declaraba, en una clara reivindicación de la importancia de la Memoria, para que las experiencias de las mujeres no queden en el silencio. Y en la sala contigua, la reflexión sobre el papel de las mujeres en la construcción de la Soberanía Alimentaria y de otro modelo de consumo desde una alternativa feminista…–"Yo iría a todo, ¡pero no se puede!"–.

–"¡Vamos a la mani!!"

–"¡Alerta, alerta, alerta que camina, el movimiento feminista por las calles *granaínas*!!!"

# >> EZAGUTZEN AL DUZU...? ¿CONOCES? <<

## >> ERMUKO EMAKUMEEN SUSTAPEN ZENTROA

## >> CENTRO DE PROMOCIÓN DE LA MUJER DE ERMUA



El Centro de Promoción de la Mujer de Ermua inició su andadura hace más de 40 años, una larga trayectoria de la que han sido partícipes muchas mujeres, no sólo tomando parte en las diferentes actividades sino porque para ellas *"la inauguración del centro supuso un antes y un después"* en sus vidas.

1970ean, sortu berritan, ikastaro zenbait ematen hasi zen emakumeentzat (psikologia, kultura, hezkuntza…), eta apurka-apurka, hezitzaile eta ikaslek, beraientzako espazio eta denbora bilakatu zuten ikasleku hura emakumeek halakorik ez zeukaten garai hartan.

El testimonio de quienes estuvieron en esos primeros años deja constancia de ello: *"lo importante era salir de casa, juntarnos y, sobre todo, romper con el aislamiento que todas, tal vez de manera especial las mujeres que llegaban de otros lugares, vivíamos".*

Prozesu hartan guztiz garrantzitsuak izan ziren hezitzaile jardun zuten emakumeak (sortu zenetik bat baino gehiago): *"irakasle batzuk oso potenteak ziren; beraien bitartez aldatzen hasi ginen hezkuntza ulertzeko modua: guztiok geneuzkan alabak eta/edo semeak, eta gutariko askorentzat helburu bilakatu zen gure seme/alabak pertsona libre legez haztea".*
Urteak joan ahala heziketa berezitu egin zen eta lanbide-orientazio eta enplegurako prestakuntza ikastaroak burutu ziren. Horrek eskola-graduatua lortzera animatu zituen emakume asko, eta lan ordaindu bat bilatzeko aukera planteatzera ere bai zenbait kasutan.

No menos importantes han sido los vínculos y redes creados entre las alumnas, dentro y fuera del Centro, llegando a constituirse la Asociación de Antiguas Alumnas del Centro de Promoción, quienes mantienen su actividad reuniéndose y organizando charlas, cursos, salidas culturales… y al que han ido incorporándose las mujeres del Centro.

Guztiak, elkartekoak zein zentrokoak, ordezkaria dute Ermuko Berdintasun Kontseiluan.

En la actualidad el Centro sigue siendo un espacio de encuentro y empoderamiento para mujeres, donde, a través de una formación diversa, se promueve la participación social de las mujeres, el desarrollo de sus capacidades y conocimientos. A lo largo de todo el curso se realizan diferentes módulos y actividades, pudiendo las participantes optar por aquellos que tienen una duración trimestral u otros de curso completo. El único requisito es ser mujer y animarse a realizar la inscripción.
Quienes tengan interés o quieran informarse sobre las actividades pueden hacerlo acudiendo al Centro, situado en la calle Sexto Centenario nº 20 y abierto de lunes a viernes de 16:00 a 18:00 horas, o enviando un e-mail a:
m_asun_ramos@yahoo.es




# EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

# INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EMAKUNDE
Emakumearen Euskal Erakundea
Instituto Vasco de la Mujer
Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

1988ko otsailaren 5ean Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea/Instituto Vasco de la Mujer sortzeko legea onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak. Badira 21 urte herri-erakunde horrek emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu nahi duela bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialeko arlo guztietan, sexuaren arabera dauden diskriminazio- eta ezberdintasun-egoerak aztertu eta horiek zuzenduko dituzten neurriak suspertzeko tresna ere badelarik.

Entre sus funciones están las de presentar al inicio de cada legislatura un Plan de actuación que vincula a todos los poderes públicos vascos, realizar una memoria de las actuaciones llevadas a cabo por estos y elaborar anualmente el informe sobre la situación de las mujeres en la CAV. También realizan el seguimiento de la legislación y normativa que genera la Administración Vasca, canalizan las denuncias que lleguen desde cualquier ámbito (publicitario, sanitario…) en materia de igualdad e informan/asesoran a asociaciones y a instituciones. Proporcionan y fomentan la formación a agentes sociales y a profesionales de todos los sectores, específicamente las dirigidas al mundo educativo (formación y sensibilización con profesorado, AMPAs, alumnado…) por ser éste un marco básico para el cambio de mentalidades en las nuevas generaciones.

Azkenik, erakunde horrek bere webetik behera karga daitezkeen argitalpenak ditu. Web horretatik erakundearen dokumentazio-zentrora ere sar daiteke, non generoaren inguruko gaiak eta ikerketeta espezializatuak biltzen dituzten dokumentu-funtsak jaso (berdintasunerako herri-politikak, baterako hezkuntza, teoria feminista, emakumeen kontrako indarkeria…) eta kontsultatu eta mailegutan hartzeko zerbitzu bat dagoen.
http://www.emakunde.euskadi.net/

# >>GURE HISTORIA BERRESKURATUZ

## RECUPERANDO NUESTRA HISTORIA<<


Esperanza Loitxate


Eladia Unamuno

LAS MUJERES HEMOS SIDO PROTAGONISTAS INVISIBILIZADAS DE LA HISTORIA. POR ESO, A TRAVÉS DE ESTA SECCIÓN, TE INVITAMOS A QUE NOS ACOMPAÑES EN EL PROCESO DE RESCATE DE ESA MEMORIA COLECTIVA DE LAS MUJERES Y, EN ESPECIAL, DE LAS MUJERES DE ERMUA.

### COMADRONAS O PARTERAS
### EMAGINAK

Este oficio es el origen de la Obstetricia de nuestros días. De hecho, ésta toma su nombre de la palabra latina obstetrix, utilizada en Roma para nombrar a las parteras. Deriva del verbo obstare, que se traduce como “estar al lado” o “delante de” y viene a señalar que, efectivamente, la partera era quien, históricamente, acompañaba y ayudaba a la parturienta antes, durante y después del parto.

Erditzean emakumeak zaintzen zituztenak ere emakumeak izaten ziren komunitate guztietan, eta beraien eginkizuna ezinbestekoa izaten zen jaiotzan laguntzeko, osasun lanbideak instituzionalizatu ez ziren arte. Esan beharra dago medikuntza ez zela XIX. mendera arte obstetriziaz arduratu.
Hala ere, gizartearen izaera androzentrikoak izkutatu egin du emakume horien lana, aintzat hartu eta baliorik eman gabe.

El aprendizaje del oficio se hacía junto a una partera experta. Se ejercía habitualmente por tradición familiar o por relaciones de proximidad, por lo que es frecuente encontrar a varias generaciones de parteras (madre, hija y nieta) o a parientes cercanas (sobrinas), que aprendían el oficio desde jóvenes.

Duela gutxi arte gure gizartean emaginak ziren erdi-urren zeuden emakumeei etxeetan erditzen laguntzen zietenak, laguntza fisikoa eta psikologikoa emanez eta, aldi berean, emakume-arteko loturak sortuz.

Erditzeko zeuden emakumeek emaginei deitzen zieten eta etxean egoten ziren umea jaio arte. Batzuetan emaginak familiarekin jaten zuen eta, inoiz, lotan geratu ere bai. Gero, erditu ondorengo lehen egunetan, ama eta haur jaioberria zaintzen zituen haurrari zilborra jausi arte.

No pedían pago por su trabajo, aunque era común que recibieran regalos voluntarios, productos que cubrían necesidades básicas, como comida…etc. Mujeres volcadas a ayudar a otras mujeres, estaban dispuestas a cualquier hora del día y de la noche, y contaban por ello con un reconocimiento social.
Tal y como ha ocurrido en la mayoría de los pueblos del entorno, en Ermua, han existido varias generaciones de parteras. No entra dentro de nuestro cometido ni tenemos medios para hacer un estudio completo en el tiempo y saber de todas ellas, pero queremos nombrar –al menos– a Esperanza y Eladia, y a la madre de ésta, Segunda Aranburu, que ejercieron como comadronas, sin titulación pero con un gran saber, ayudando a parir a nuestras abuelas o madres.

A éstas, y a todas las demás, nuestro reconocimiento y homenaje.
Horiei, eta gainerako guztiei, gure esker ona eta gorazarrea.

# >> ARROSA ETA URDINAZ HARATAGO... PERTSONAK IZATEN LAGUNTZEN DIGUTEN JOLASAK

## MÁS ALLÁ DEL ROSA Y EL AZUL... JUEGOS QUE NOS ENSEÑAN A SER PERSONAS



>> Berdintasun Ministerioaren datuak: jostailuen %66 mezu sexistak ematen dituzte

### IMPORTANCIA DEL JUEGO Y LOS JUGUETES

El mundo del juego es el medio natural de niñas y niños para su desarrollo personal y aprendizaje.
Jolasa neskato-mutikoek garatzeko eta ikasteko duten bide naturala da. Horregatik, eginbehar garrantzitsua izanik itzelezko dibertsioa da aldiberean.
Jostailu bat oparitzea, jolasteko ideia bat oparitzea da eta jolasaren eta jolasteko moduaren aukeraketa adierazten du. Jolasaren bitartez neskato/mutikoek, gu helduok imitatuz, gure baloreak ikasi eta bere egiten dituzte.
Haurrek etorkizunean, gizon-emakume direnean, bizitzaren aurrean nola jardungo duten adierazten digute jostailuek.

### ¡BASTA DE PUBLICIDAD SEXISTA!

Aunque ninguna niña tiene preferencia innata por las muñecas y cocinas, ni los niños nacen queriendo jugar exclusivamente con coches o balones, la elección de los juegos y juguetes se realiza pensando si es para niña o niño. La publicidad es algo determinante en este negocio, que –por cierto- mueve mucho dinero. En consecuencia, desde edades muy tempranas, cada sexo crece, se identifica y muestra preferencia por aquellos juguetes que los anuncios etc. muestran como para unas y otros,



>> Comprar juguetes en base a lo que socialmente se considera adecuado para niñas o niños, limita las posibilidades de juego y -por lo tanto- de aprendizaje de las criaturas, cuando ésta es precisamente la función del juego y los juguetes

sea de forma descarada o con mensajes más indirectos, pero igual de eficaces.

## PERTSONA BAKOITZAK NOLAKOA IZAN NAHI DUEN AUKERATZEKO GAITASUNA AINTZAT HARTZEA

Jostailuen katalogoei begiradatxo bat emanez gero, edo jostailu-denda baten sartzen bazara, mutikoentzat munstro, gerra, buru-azkartasun, kirol... eta abarreko jostailuak aurkituko dituzu, gizon indartsu, ekimendun, adoretsu eta ausartaren ereduari erantzunez. Neskentzat, berriz, "etorkizuneko amatxo"aren jostailuak edo gustatzekoak, etxekoandre on edo emakume desiragarri bihurtzeko. Hortxe dago sexismoa.

Panpinekin jolastea positiboa da, pertsonen zaintza, sentimenduen adierazpena eta abar sustatzen dituelako, baina hori ezin da neskekin bakarrik lotu. Beste horrenbeste gertatzen da, mutilen kasuan, eraikuntza, mekanika, zurgintza eta halako jostailuekin, maneiu-trebetasunak garatzen laguntzen dutelako. Trebetasun horiek guztiak beharrezko dira etorkizunerako, bai emakumeentzat eta bai gizonentzat.



## ¿QUÉ PODEMOS HACER?
## ZER EGIN DEZAKEGU?

1. Piensa antes de comprar: ¿ese juguete o juego es adecuado para el niño o la niña, para su edad, y para el mundo en el que te gustaría que viviera?, ¿qué capacidades, habilidades, emociones… va a estimular?. Elige los que promuevan experiencias positivas a imitar y comportamientos igualitarios
2. Anima a tus amistades y familiares a no comprar juguetes que transmitan valores injustos, descartando los bélicos, violentos, sexistas… Opta por aquellos que favorezcan la cooperación, comunicación, corresponsabilidad… y también los que conlleven actividad física
3. Sé consciente y Explica a tus hijas e hijos o a la gente menuda de tu alrededor que la publicidad utiliza trucos para captar nuestra atención
4. Juega a construir pequeños juguetes caseros, estimulando la creatividad. Recupera los juegos de siempre.
5. Infórmate y fórmate. Y no dudes en denunciar la publicidad sexista.

>> HABLAMOS DE SEXISMO CUANDO CON EL JUEGO Y EL JUGUETE SE CONTRIBUYE A REPRODUCIR LOS ESTEREOTIPOS QUE LIMITAN EL LIBRE DESARROLLO DE MUJERES Y HOMBRES

**EZ IEZAIEZU BIDERIK ITXI!**
**¡NO LES CIERRES CAMINOS!**

# KALE INKESTA

## Preguntas GALDERAK

1. **Ezagutzen al duzu Ermuko emakume kirolari ospetsurik? Nor?**
¿Conoces a alguna mujer deportista “reconocida” de Ermua? Nombrala.

2. **Hedabideek arreta gutxiago jartzen diotela emakumezkoen kirolei uste al duzu?**
¿Crees que los medios de comunicación prestan menor atención al deporte femenino?

3. **Zer iritzi duzu horri buruz eta zer ondorio izan ditzakeela pentsatzen duzu?**
¿Qué opinas sobre ello y las consecuencia que esto puede tener?

4. **Zer egingo zenuke zure alabak boxeoa egin nahi duela, edota zure semeak gimnasia erritmikoa, esango balizu?**
¿Cuál sería tu reacción si tu hija te dijera que quiere practicar boxeo o tu hijo gimnasia rítmica?

5. **Zer uste duzu egingo lukeela ezagutzen duzun jenderik gehienak?**
¿Cuál crees que sería la reacción de la mayoría de la gente que conoces?

### MIKEL TABOADA
**(16 urte)**



1. Ermuan ez
2. Kirol batzuetan, gizonekin alderatuta, nik baietz uste dut, batez ere futbolean
3. Nire ustez, berdin, neurri berean ikusi beharko lirateke, eta telebistan berdin-berdin eman.
4. Ez litzaidake gaizki iruditzuko, berari gustatzen bazaio.
5. Ez lukeela normaltzat hartuko. Neskak boxeoan gehiago ikusten dira behar bada, baina mutila gimnasia erritmikoa egiten ez da asko ikusten.

### NURIA SOUTO
**(16 años)**



1. No tengo ni idea
2. Sí. Se le da más importancia al deporte masculino, aunque últimamente se oye más sobre las mujeres que hacen deporte.
3. Me parece que debería estar igualado. Si no, las chicas tienen menos motivación a la hora de hacer deporte o al elegirlo profesionalmente
4. Creo que todos los deportes son para todos. Da igual que un chico haga baile, es lo mismo.
5. Creo que a la mayoría les parecería mal, incluso a los padres

### PIEDI EIZAGIRRE
**(38 urte)**



1. Bai, atletismoan dabilen neska gaztea: Arantza Moreno.
2. Bai, bai. Emakumezkoena ez da aipatzen.
3. Oso txarto iruditzen zait. Adibidez nire alabaren gelan, 6 urterekin, ez dakite Athletic edo Errealean nesken futbol taldeak daudenik. Neskek ezin dutela futbolean jokatu pentsatzen zuten. Azkenean, neskek ere futbolera nola jokatzen duten ikustera eraman behar izan genuen. Ikusi egin behar sinesteko!!
4. Lagundu, eta nahi duena suspertu. Inportanteena kirola egitea da. Berak nahi duena.
5. Nire ustez gazteok garrantzi gehiago ematen diogu gure seme-alabek nahi dutenari.

### ROBERTO GÓMEZ
**(37 años)**



1. Famosa, ninguna
2. Por supuesto, sí. El deporte femenino en general tiene menos tirón, no sólo en Ermua sino en todos los sitios.
3. Pueden ser mejores deportistas pero serán menos consideradas al no ser el foco de atención.
4. A mi hijo le diría que no tiene mucha salida. A ella, aunque el boxeo femenino tiene ahora un poco más de tirón, no me gustaría.
5. Supongo que como la mía. Pero si me dijese mi hijo que quería ser boxeador tampoco me gustaría.

# PASATIEMPOS

## DENBORAPASA

## TRIBIAL FEMINISTA

1 Zein emakumek irabazi zituen Frantziako Tourra hiru aldiz, Italiako Giroa bi aldiz eta Erlojupeko Munduko Txapelketa?

2 ¿Qué montañera vasca llegó a la cumbre del Chimborazo, de más de 6.000 metros, con 17 años?

3 Zein emakume gipuzkoar dago munduko eskalatzailerik onenen artean?

4 ¿En qué puesto quedó el equipo femenino del Athletic Club de Bilbao en su primer, segundo y tercer año?

5 Zein emakumek jaso zuen 2009. urtean Asturietako Printzea saria?

6 ¿Quién fue la primera deportista en lograr la puntuación perfecta, un 10, en una competición olímpica?

7 Zein emakume mallabitarrek irabazi zituen 2009. urtean Bizkaiko Paleta-Goma Txapelketa eta Gomazko Paletako Munduko Txapelketa?

**ERANTZUNAK**

1: JOANE SOMARRIBA, 2: EDURNE PASABAN, 3: JOSUNE BEREZIARTU, 4: CAMPEONAS DE LIGA, 5: YELENA ISINBÁYEBA, 6: NADIA COMANECI, Montreal-1976, 7: ITSASO PRADERA

# Noticias de interés
## ALBISTE INTERESGARRIAK

### >> MAIALEN LUJANBIO TXAPELDUNA!!!
Maialen Lujanbio dugu Euskal Herriko bertsolarien txapeldun berria eta, ondorioz, emakume bat irabazlea lehen aldiz. Baina hori ez da gertatzen emakume bertsolaririk ez dagoelako, baizik eta duela gutxi arte bertsolaritza, bizitzaren beste hainbat alor bezala, gizonaren esparru izan delako. Zorionez, gero eta emakume gehiago dago bertso-eskoletan, txapelketetan… beraz Maialenek lortu duena beste emakume batzuek ere lortzea espero dugu. ZORIONAK MAIALEN!!

### >> JORNADAS FEMINISTAS ESTATALES. GRANADA 2009
Más de 4000 mujeres acudieron a estas jornadas celebradas los días 5, 6 y 7 de diciembre bajo el lema "Granada, treinta años después: aquí y ahora". Tres décadas han pasado desde el primer encuentro estatal en esta ciudad y de nuevo se hace visible la fuerza del movimiento feminista, abriéndose un espacio para el debate e intercambio de experiencias y para crear redes. Más de un centenar de actividades en las que se abordaron temáticas como: crisis, globalización, identidades, luchas feministas, sexualidad …
Todas estas ponencias estarán disponibles en la página web: www.feministas.org .

### >> http://avatarberdintasuna.blogspot.com
Neska-mutil gazteei zuzendutako blog hau berdintasunaren alde eta indarkeria sexistaren kontrako gune bat da. Blog honetan informazioa elkartrukatu, komentarioak egin, beste udalerrietan egiten diren ekintza eta ekimenen berri jakin eta abar egin dezakezue.
Azaroaren 25a "Emakumeenganako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna"-ren kanpainaren baitan sortua, mantendu egingo da blog hau kanpainan hasitako lanari jarraipena emateko, alegia, indarkeria sexistaren inguruko hausnarketa sustatuz eta sareak sortuz gazte-jendea inplikatzeko.
Anima zaitez eta sartu: http:/avatarberdintasuna.blogspot.com

### >> ELIGE TU DEPORTE
Una publicación dirigida a todas las personas que participan en el ámbito deportivo y, en especial, a las profesoras y profesores de educación física y a profesionales que promueven actividades deportivas extraescolares que quieran analizar críticamente tanto su labor educativa, como su intervención en la planificación de las políticas que afectan a la práctica deportiva. Se trata de prevenir las actitudes sexistas y romper con el modelo deportivo masculino dominante. Está publicación puede ser descargada desde http://www.educarenigualdad.org/Dap_Materiales.aspx?c=0&p=4

### >> WEB : www.igualmente.org
Emakume Progresisten Federazioak web orri berri bat jarri du martxan berdintasuna suspertzeko eta etorkin gazteen artean generoaren indarkeria prebenitzeko. Web horren bitartez genero-ezberdintasunak emakumeenganako indarkeriarekin duen loturari buruzko pentsaera kritikoa suspertu nahi da gazte etorkinen artean, eta inguruan genero-indarkeria egoerarik ezagutzen badute, horren kontrako baliabide guztiak eskuragarri jarri. Web honek dinamikoa izan nahi, horregatik bertara sartzen den pertsona orok aukera izango du ekarpenak egiteko, edukiak sortzen eta sare birtualak eraikitzen parte hartuz. Ezagutu ezazu www.igualmente.org helbidean sartuz.

### >> ZORIONAK PARA ARANTZA MORENO FERNÁNDEZ
Las mujeres que participamos en el Consejo de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua, representantes de las asociaciones y grupos del municipio, queremos felicitar a la campeona ermuarra en lanzamiento de jabalina Arantza Moreno Fernández. Todos los éxitos deportivos merecen nuestro aplauso, pero con especial satisfacción celebramos este nuevo triunfo de una deportista local que se merece el mayor reconocimiento por su dedicación y esfuerzo, que ya le ha reportado otros éxitos anteriormente y, con toda probabilidad, lo seguirá haciendo en el futuro. Felicidades y …¡adelante!




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Julia López, Idoia Carracedo, Olatz Gil, Zaida Fernández y Patricia Zapata.

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
Trazos de Igualdad

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
***Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.***


*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
***Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.***


Casa de la Mujer / Ermua
Emakumeen Topalekua

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA


Casa de la Mujer
Emakumeen topalekua
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 171 030 Faxa: 943 170 123
E.posta: casadelamujer@udalermua.net
web: www.ermua.es



Depósito Legal: